EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien plana

2022ko martxoa

**EDUKIEN AURKIBIDEA**

1. Sarrera ... 3
2. Planaren helburuak eta aplikazio-eremua ... 5
   2.1. Helburuak ... 5
   2.2. Aplikazio-eremua ... 5
   2.3. Jarduera-Esparrua ... 6
3. Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak ... 7
   3.1. Testuingurua ... 7
   3.2. Prebentzio-tresnak ... 7
      Iruzurraren aurkako borrokarako Adierazpen Instituzionala ... 7
      Iruzurraren aurkako konpromisoa laguntzen jakinarazpenetan ... 7
      Unitate, zerbitzu edo organo arduraduna ... 7
      Arriskuaren eraginaren eta probabilitatearen hasierako ebaluazioa ... 7
      Kode Etikoa eta Jokabide-Kodea ... 9
      Prestakuntza eta sentsibilizazioa ... 10
      Datuak egiaztatzea eta gurutzatzea ... 10
   3.3. Detekzio-tresnak ... 10
      Barne-kontroleko sistema ... 10
      Komunikazio-sistema ... 11
      Adierazleen katalogoa (bandera gorriak) ... 12
      Faltsututako dokumentuak detektatzea ... 12
   3.4. Zuzenketa- eta jazarpen-prozesuak ... 13
4. Interes-gatazkak saihesteko prozesuak eta tresnak ... 15
   4.1. Testuingurua ... 15
   4.2. Prebentzio eta detekzio tresnak ... 15
      Interes-gatazken modalitateei buruzko informazioa ematea inplikatutako alderdiei ... 15
      Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) ... 16
      Interes-gatazka posiblearen prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari buruzko dokumentua ... 16
      Datuak egiaztatzea eta gurutzatzea ... 17
      Adierazleen katalogoa (bandera gorriak) ... 17
   4.3. Zuzenketa-tresnak ... 17
      Ex post egiaztapen-kontrolak ... 17
      Komunikazio-sistema ... 17
      Jarduera berrikustea, geldiaraztea eta/edo etetea ... 18
5. Estatu-laguntzak eta finantzaketa bikoitza saihesteko prozesuak eta tresnak. ... 19
   5.1. Testuingurua ... 19
   5.2. Prozesuak eta tresnak ... 19

Autoebaluazioa ..... 19
Kudeaketa-adierazpena ordainketa-eskaeran ..... 20
Barne-kudeaketa eta -kontrola ..... 20
6. Ingurumen-inpaktu negatibo nabrmenik gertatzen ez dela bermatzeko prozesuak eta tresnak ..... 21
6.1. Testuingurua ..... 21
6.2. Ingurumen-kalte nabarmenik eragiten ez dela bermatzeko prozesua (DNSH) ..... 21
7. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarraibideak ..... 22
Jarraipena eta ebaluazioa ..... 22
Prozedurak eguneratzea ..... 22
Eguneraketak eta aldaketak komunikatzea eta zabaltzea ..... 22
8. Proposatutako neurrien laburpen betearazlea ..... 23
9. Eranskinak ..... 26
9.1. I. Eranskina - Iruzurraren aurkako borrokarako Adierazpen Instituzionala ..... 26
9.2. II. Eranskina - Arriskuaren eragina, probabilitatea eta ebaluazioa ..... 26
9.3. III. Eranskina - Kode etikoa eta jokabide-kodea ..... 29
9.4. IV. Eranskina - Adierazleen katalogoa (bandera gorriak) ..... 30
9.5. V. Eranskina - Interes-Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) ..... 43
9.6. VI. Eranskina - Interes-gatazka posiblea Prebenitzeko, Detektatzeko eta Kudeatzeko dokumentua ..... 45
9.7. VII. Eranskina - Estatu-laguntzen erregimenaren bateragarritasunerako eta finantzaketa bikoitza saihesteko testa ..... 47
9.8. VIII. Eranskina.- Ordainketa-eskabideko kudeaketa-aitorpena ..... 49
9.9. IX. Eranskina - Kalte Nabarmenik Ez Eragiteko Printzipioaren Autoebaluazioa - DNSH ..... 50
9.10. Terminoen glosarioa eta definizio nagusiak ..... 53
Glosarioa ..... 53
Termino teknikoen definizioa ..... 53

# 1. Sarrera

Dokumentu honek Eusko Jaurlaritzaren Neurrien Plana jasotzen ditu, dagoeneko ezarrita dituzten iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak indartzeko, osatzeko eta/edo doitzeko, baita Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoen (BEM) Europako funtsek finantzatutako jarduerak kudeatzen dituzten erakunde guztiei eskatzen zaien estatuko eta Europako araudiaren eskakizunei egokitzeko ere.

Batasunaren araudiak ezartzen duen bezala, Wstatu kideek, BEMren esparruan funtsen onuradun edo mailegu-hartzaile diren aldetik (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 EB Araudia, 2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena), Batasunaren finantza-interesak babesteko neurri egoki guztiak hartuko dituzte, bai eta Mekanismoak finantzatutako neurriekin lotutako funtsen erabilera Batasuneko eta tokiko Zuzenbide aplikagarrira egokitzen dela zaintzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez, bai eta ordaindutako edo oker erabilitako zenbatekoak berreskuratzeko kontrol-sistema eraginkor eta efiziente bat ezartzeko exijentziari dagokionez ere. Halaber, printzipio horizontal gisa ezartzen da Mekanismoak "ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko" printzipioa errespetatzen duten neurriak baino ez dituela babestuko.

Horretan oinarrituta, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak HFP/1030/2021 Agindua onartu du, irailaren 29koa. zeinak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratu duen (aurrerantzean, OHFP 1030/2021). Agindu horretan, Europako Erkidegoko araudiak BEEP betearazteko ezarritako eskakizunak modu koordinatuan betetzen direla bermatzeko jarraibideak ezartzen dira. Jarraibide horien artean daude, alde batetik, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea, eta, bestetik, ingurumenean eragin negatibo nabarmenak izan ditzaketen arriskuen azterketa (Do No Significant Harm DNSH), hasierako ebaluazioaren jarraipena eta emaitzen egiaztapena egitea.

HFP/1030/2021 Aginduak 5. eta 6. artikuluetan garatzen ditu printzipio horiek:

- 5. artikuluaren arabera, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean jasotako erreformak eta inbertsioak gauzatzeko neurriek ez diete kalte esanguratsurik (DNSH) eragingo definitutako sei ingurumen-helburuei[1]
- 6. artikuluaren arabera, "BEEPren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien Plan bat izan beharko du, dagokion jarduera-eremuan dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatu eta adierazi ahal izateko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez".

Eusko Jaurlaritzak, 2022rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen V. Kapituluan, eta Gobernu Kontseiluaren Erabaki-Proposamenean[2], Eraldaketa, Berreskuratze eta Erresilientzia Planari lotutako

[1] Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/852 (EB) Araudiak, 2020ko ekainaren 18koak, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoak eta 2019/2088 Araudia (EB) aldatzen duenak, honako helburu hauek zehazten ditu: a) Klima-aldaketa arintzea; b) klima-aldaketara egokitzea; c) ur- eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa; d) ekonomia zirkular baterako trantsizioa; e) kutsaduraren prebentzioa eta kontrola; f) biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta berreskuratzea

[2] Onartzeko prozesuan dagoen araua.

funtsen kudeaketa arautzen duten Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-gauzatzeari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez. Lehenengoak, 33. artikuluan, jarduera eta proiektu horien gauzatzearen jarraipenari eta justifikazioari buruzko artikuluan, "Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako jarduerak eta proiektuak gauzatzeko eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko sailetako eta sektore publikoko erakundeetako organoek, berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoa arautzen duen araudian eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ematen dituen jarraibideetan aurreikusitakoaren arabera, mugarriak eta helburuak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoa den informazioa eman beharko dute, bai eta jarduketa eta proiektu horien aurrekontu- eta kontabilitate-gauzatzearen justifikazio eta egiaztapen egokia ere". Bigarrenak zortzigarren puntuan ezartzen du, BEEPren funtsen kudeaketaren koordinazioaren esparruan, Kohesio Politikako eta Europako Funtsetako Zuzendaritza arduratuko dela "beharrezkoak diren jarduerak bultzatzeaz, Estatuko agintariek, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa arautzen duen araudiarekin eta hura garatzeko xedapenekin bat etorriz, jarduera-jarraibide eta -irizpide komunak defini ditzaten sektore publikoko erakunde betearazle eta kudeaketea-organo guztientzat. Gainera, subsidiarioki, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde betearazle eta kudeaketa-organoentzako jarraibide eta jarduera-irizpide komun horiek garatu ahal izango ditu, agindutako azpiproiektuak, jarduerak, ekintzak eta zereginak gauzatzean nahitaez kontuan hartu beharreko printzipioei heltzeko, hala nola, arriskuen analisia, ingurumenean izan ditzakeen eragin negatibo esanguratsuei dagokienez, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea, Estatuaren laguntzen araubidearekin bateragarria izatea eta finantzaketa bikoitza prebenitzea, edo komunikazio-jarduketei lotutako betebeharrak".

Era berean, plan hau egiteko hurrengo dokumentua hartu da kontuan: "*Iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak Indartzeko Orientabideak, Berreskuratze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduaren 6. artikuluan aipatzen direnak*", Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioko Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiak egindako eta 2022ko urtarrilaren 24an argitaratutako dokumentua.

# 2. Planaren helburuak eta aplikazio-eremua

## 2.1. Helburuak

Planak lau helburu nagusi ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan garatutako azpiproiektu eta jarduketekin zerikusia dutenak:

- **Iruzurraren agerpena murriztea**, barnekoa zein kanpokoa, iruzur-arrisku nagusiei aurre eginez eta iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuak kontuan hartuz: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.
- **Interes-gatazka saihestea**, parte hartzen duten eragile guztiak horren garrantziaz sentsibilizatuko dituen sistema bat ezarriz eta dagozkion prebentzio-, detekzio- eta zuzenketa-neurriak ezarriz.
- **Europako finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzea**, estatu-laguntzei buruzko araudia aplikatzen dela bermatuz eta **gehiegizko finantzaketa publikoa saihestuz**, funtsen jatorria edozein dela ere.
- BEM funtsekin **ingurumenari kalte nabarmenik eragiten ez dioten ekimenak** soilik babestea.

## 2.2. Aplikazio-eremua

Plan hau Eukal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari, Eusko Jaurlaritzaren bidez Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak jasotzen dituzten Foru eta Toki Administrazioei aplika dakieke, eta era berean, aplikagarritasun zuzena edo egokitua edozein erakunde betearazle eta/edo kudeatzailetara zabaldu ahal izango da, borondatez hala erabakitzen bada.

Euskal Autonomia Erkidegoari atxikitako erakundeen araubide juridiko eta instituzionalaren berezitasunak eta gauzatu ditzaketen proiektuen berezitasunak kontuan hartuta, azpiproiektuen eta jarduketen ardura duten kudeaketa-organoek Plan hau beren eremuetara egokitzeko beharrezkotzat jotzen dituzten berezitasunak ezarri ahal izango dituzte, betiere egokitzapen horiek Planean ezarritako printzipioen aurkakoak ez badira.

Plan hau ezartzean sortzen diren neurriak aplikatzeari dagokionez, funtsezkoa da erantzukizun-maila guztiak ondo definituta geratzea, BEEPren dokumentuaren 4.6 atalarekin bat etorriz, Kontrola eta Auditoria izenekoa, batez ere kontrolari dagokionez:

- **1. maila – Organo betearazlearen barne-kontrola:** BEMn kokatutako jarduera bat gauzatzearekin lotutako edozein administrazio-jardueraren kontrol primarioa eta oinarrizkoa da. Bere eginkizuna lege-eskakizunak betetzeari buruz eta mugarriak eta helburuak betetzeari buruz segurtasuna ematea da, baita finantza-kudeaketa ona bermatzea, administrazio-prozedura arruntak aplikatuz. Zehazki, BEEPren neurriek hurrengo hauek betetzen dituzten jarraipena: ezarritako ezagutza tematikoak; mugarriak eta helburuak betetzea; finantzaketa bikoitza, interes-gatazkak aztertzea; ustelkeria ikertzea; eta iruzurra kontrolatzea.
- **2. maila – Organo independente baten barne-kontrola:** gastua kudeatzen duten organoekiko modu independentean jarduten duten Administrazio jarduleekiko independenteak diren barne-kontroleko organoei (Esku-hartzailetzak eta Zerbitzu Juridikoak; erakunde publikoetako Kontrol-organo

baliokideak) esleitutako kudeaketa-kontrola da. Bere jardueren artean daude kontratazio-mahaietan parte hartzea; diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien aurretiazko txostenak; nahitaezkoa eta loteslea den gastua betearazteko egintzen legezkotasunaren kontrola eta aldez aurreko fiskalizazioa.

- **3. maila – Ex post auditoriak eta kontrolak:** Kontrolaren xede den organo edo erakundearekiko autonomia osoz beste bien gainean jarduten duen finantza-kontrola da. Estatuko Administrazioko Esku Hartzailetza Nagusiaren (IGAE: https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitio/igae/es-ES/Paginas/inicio.aspx) ardura da, Mekanismoa Kontrolatzeko Agintaritza den aldetik, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 21. artikuluaren arabera, zeinak Administrazio Publikoa modernizatzeko eta BEEP betearazteko urgentziazko neurriak onartzen dituen, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin lankidetzan.

## 2.3. Jarduera-Esparrua

Hurrengo kapituluetan zehazten den jarduera-esparruak planean adierazitako lau helburuak lortzeko praktikan jarriko diren tresnak ezartzen ditu. Kasu askotan, hautatutako tresnak dagoeneko ezarrita dauden beste tresna batzuen osagarri dira, bai oro har euskal administrazio publikoen prozedurazko praktikan, bai berariaz administrazio horiek jasotzen dituzten egitura- eta kohesio-funtsak kudeatzeko.

# 3. Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak

## 3.1. Testuingurua

Planak iruzur-arrisku nagusiei heltzen die, iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuak kontuan hartuta: **prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena**, eta ziurtatzen du inplikatutako alderdi guztiek, barnekoek (administratzaileek, kudeatzaileek eta kontrolatzaileek) zein kanpokoek (onuradunek eta gizarteak, oro har) ondo baino hobeto ulertzen dituztela beren erantzukizunak, betebeharrak eta, hala badagokio, eskubideak, iruzurrari aurre egiteko planteamendu koordinatu batean oinarrituta.

Iruzur-arriskuaren ebaluazioa, prebentzio- eta detekzio-neurri egokiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak, Foru-Aldundiek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek une egokian egindako ikerketa koordinatua konbinatuz gero, nabarmen murriztuko da iruzur-arriskua, eta, gainera, disuasio-metodo garrantzitsua izango da.

## 3.2. Prebentzio-tresnak

#### IRUZURRAREN AURKAKO BORROKARAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakunde guztiek **Iruzurraren aurkako borrokarao Adierazpen Instituzional bat sinatuko dute, beren webgune instituzionalean argitaratuko dena, eta iruzurraren aurkako borrokan estandar etiko gorenak lortzeko adierazpen argi eta sendoa izango du.**

Dokumentu honen **I. Eranskinean iruzurraren aurkako borrokari buruzko adierazpen instituzional** bat erantsi da, inplikatutako erakundeek neurria bete dezaten errazteko.

#### IRUZURRAREN AURKAKO KONPROMISOA LAGUNTZEN JAKINARAZPENETAN

Laguntzen azken onuradunek berariaz adierazi beharko dute Europako, nazioko eta autonomia-erkidegoko araudian eta Plan honetan ezarritako iruzurraren aurkako neurri guztiak betetzeko konpromisoa. Esleipendunek sinatu beharko dituzten laguntzen jakinarazpenean eta onarpen-agirian formalizatuko da konpromisoa.

Kontratazio bat denean, nahitaezko baldintza izango da Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztea.

#### UNITATE, ZERBITZU EDO ORGANO ARDURADUNA

Plan hau aplikatu behar zaien erakundeek unitate, zerbitzu edo organo bat izendatu beharko dute. Unitate, zerbitzu edo organo hori dokumentu honetan jasotako xedapenak betetzeaz, iruzurraren ebaluazioa egiteaz, irits daitezkeen salaketak aztertzeaz, iruzur edo ustelkeria izan daitezkeen egoerak ebaluatzeaz eta, hala badagokio, dagokien erakundeei jakinarazteaz arduratuko da, bai eta neurri zuzentzaileak proposatzeaz ere.

#### ARRISKUAREN ERAGINAREN ETA PROBABILITATEAREN HASIERAKO EBALUAZIOA

Plan hau aplikatuko zaien erakundeek egingo duten iruzur-arriskuaren ebaluazioaren helburu nagusia da Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egin diezaieketen iruzur-arrisku jakin batzuen edo maizen gertatzen diren iruzur-egoeren probabilitatearen eta inpaktuaren autoebaluazioa erraztea, bai eta erakundeak gaur egun bere eskumenen garapenean ezarrita dituen kontrolak aplikatu ondoren oraindik iraun dezaketen

arriskuak murrizten lagunduko duten kontrol aringarriak hartzea ere.

Arriskuaren ebaluazio proaktiboa, egituratua eta espezifikoa da. Kudeaketa-organo bakoitzak bete beharko du, eta iruzurra jasan dezaketen prozesuaren zatiak identifikatzeko, kontrolatzeko eta detektatzeko arrisku-mailaren arabera beharrezkoak eta proportzionatuak diren neurriak hartzeko balioko du.

Iruzur-arriskuen autoebaluazioa autoebaluazio-prozesu baten bidez garatzen da.

**Autoebaluazio-prozesua**.

Iruzur-arriskuen autoebaluazioa irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren arabera egingo da, Batzordearen autoebaluazio-tresna erabiliz, Guidance Note on fraud risk assessment for 2014-2020[3] (DG REGIO), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 zk.ko Araudiaren 125.4 c) artikulua aplikatuz garatua[4], Eskualde Garapeneko Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsari eta Europako Itsas eta Arrantza Funtsari buruzko xedapen komunak ezartzen dituena, eta funtsetako bati buruzko xedapen orokorrak ezartzen dituena.

Tresna horren aplikazioarekin[5], alde batetik, jarraian zehazten diren kudeaketa-prozesuetan gerta daitezkeen arrisku espezifikoak identifikatu nahi dira, autoebaluazioaren arabera organismoak jada aplikatzen dituenez gain beste kontrol batzuk ezarri beharko liratekeenak, iruzurrezkoak izan daitezkeen jardueren inpaktu-probabilitatea maila onargarrietara murrizteko, eta, bestetik, antzemandako iruzur-arriskuak arintzeko hartu beharreko neurri eraginkor eta proportzionatuak hautatu nahi dira:

- Onuradunak hautatzea.
- Finantzatutako operazioak gauzatzea eta egiaztatzea.
- Kontratuak / diru-laguntzak esleitzea.
- Ziurtapena eta ordainketa.

Arriskuak identifikatzeko, lan kolektibo eta iraunkor bat egingo da (aurretiazko esperientzia, arriskuen inbentarioa), arriskuaren deskribapen bat, haren izaera orokorra edo espezifikoa definituz, zein arlotan/prozesutan eragiten duen, nork parte har dezakeen eta arrisku mota: barneko/kanpoko kolusioa.

Iruzur-arriskuaren autoebaluazioa funtsezko urrats metodologiko hauetan oinarrituko da:

1. Iruzur jakin bat gertatzeko arriskuaren zenbatespen kuantitatiboa, probabilitatearen eta eraginaren (arrisku gordina) balioespenean oinarrituta.
2. Arrisku gordina arintzeko gaur egun martxan dauden kontrolen eraginkortasunaren balorazioa.

---

[3] https://ec.europa.eu/regional_policy/en/information/publications/guidelines/2014/fraud-risk

[4] https://www.boe.es/doue/2013/347/L00320-00469.pdf

[5] Autoebaluazioa Europako Batzordearen Iruzur Arriskua Ebaluatzeko Orientazioen eta iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuen arabera egingo da. Horretarako, gaur egun EEGF 14-20 funtsaren kudeaketan iruzur-arriskua autoebaluatzeko erabiltzen den kalkulu-orrien sistema bera erabiliko da.

3. Arrisku garbiaren balorazioa, abian jar daitezkeen kontrolen eraginkortasuna eta eragina kontuan hartu ondoren, hau da, egoera, ebaluazioaren unean den bezala (hondar-arriskua).
4. Ezarri asmo diren kontrol aringarriek arrisku garbian edo hondar-arriskuan izan dezaketen eraginaren balorazioa.
5. Arrisku objektiboaren zenbatespena, hau da, kontrol eraginkorrak abian jarri ondoren kudeaketa-agintaritzak onargarritzat jotzen duen arrisku-maila.

Irailaren 29ko HFF/1030/2021 Aginduaren 6.5 c) artikuluaren arabera, iruzur-arriskuen autoebaluazioa aldian behin egin eta berrikusi behar da, bi urtean behin edo urtean behin, aurkitutako iruzur-arriskuaren arabera eta, nolanahi ere, iruzur-kasuren bat detektatu denean edo kudeaketa-prozeduretan edo horiek gauzatzen dituzten langileetan aldaketa esanguratsuak daudenean.

Identifikatutako arrisku-maila oso txikia bada eta aurreko urtean iruzur-kasurik atzeman ez bada, autoebaluazioa bi urtean behin soilik berrikusiko da.

Agindu horrek berak, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzio-neurrien artean, kudeatutako neurri guztietarako arriskua ebaluatzeko mekanismo egokiak ezartzea jasotzen du, eta horren ebidentzia uzten du, iruzurra jasateko arrisku handiena duten prozesuko alderdiak bilatzeko eta bereziki kontrolatzeko, honako oinarri honen gainean:

a. Iruzurra gehien eragin dezaketen neurriak identifikatzea, hala nola intentsitate handikoak, aurrekontu handikoak, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza askotakoak, kontrol konplexuak, etab.
b. Interes-gatazka posibleak identifikatzea.
c. Barne-kontroleko sistemaren aurretiazko lanen emaitzak (Ikus Planaren 3.3 atala).
d. Europako Batzordearen edo, hala badagokio, Europako Kontu Auzitegiaren auditorien emaitzak.

Dokumentu honen **II. Eranskinean**, **arriskuaren eragina eta probabilitatea autoebaluatzeko eredu bat** erantsi da, arriskua autoebaluatzeko prozesua egin aurreko urratsa izango litzatekeena.

Nolanahi ere, kudeatzaile guztientzako barne-kontroleko prozesuak ezartzeko, horri buruz agintari nazionalek eta europarrek emandako araudia eta gomendioak beteko dira, bai eta BEEPrentzat berariazkoak direnak ere.

#### KODE ETIKOA ETA JOKABIDE-KODEA

Euskal Autonomia Erkidegoak Erakunde Harremanetarako Sailburuordearen azaroaren 22ko 67/2016 Ebazpena onartu zuen. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko eta haren sektore publikoko kargu publikodunen Kode Etikoaren eta Jokabide-Kodearen Testu Bategina onartzen duen Gobernu Kontseiluaren Erabakia argitaratzea xedatzen da, eta Kode horri aurreikuspen berriak gehitzen zaizkio. Erabaki horren eginkizunak eta eskumenak Etika Publikoaren Batzordeari dagozkio, zeina Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren menpekoa baita.

Hiru Lurralde Historikoetako Foru-Aldundiek kode etikoak dituzte: 477/2015 Erabakia, Diputatuen Kontseiluarena, irailaren 3koa, Arabako Lurralde Historiko honetako kargu publikoen eta sektore publikoko ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodea onartzen duena. Bizkaiko Foru Aldundiaren Europako Funtsen Kudeaketako Arriskuen

Kudeaketaren arloko Kode Etikoa eta Jokabide-Kodea. Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Kode Etikoa eta Kudeaketa Onaren Kodea.

Plan hau aplikatu behar zaien erakundeek, halakorik ez badute, Kode Etiko bat egin beharko dute beren zerbitzura dauden langileentzat. Kode horretara atxiki beharko dira erakunde betearazle gisa BEEP gauzatzen parte hartzen duten pertsona guztiak, kargu publikoak izan ala ez.

Kode Etikoa eta Jokabide-Kodearen helburua iruzurgileak uxatzea eta iruzurrari aurre egiteko agintarien eta inplikatutako langileen ahalik eta konpromisorik handiena lortzea izango da, baita osotasuna, objektibotasuna, kontuak ematea eta zintzotasuna sustatzea ere.

Dokumentu honen **III. Eranskinean** eredu bat erantsi da, ezartzen den **kode etikoak eta jokabide-kodeak izan behar dituen gutxieneko baldintzak** zehazten dituena. Euskal administrazioetan indarrean dauden kargu publikoentzat indarrean dauden kode etikoek, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak zerbitzari publikoei eskatzen dizkieten balio etikoekin batera, hura egiteko funtsezko abiapuntua izango da.

#### PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak iruzurraren aurka borrokatzeko politikei buruzko prestakuntza-jarduera teorikoak eta praktikoak jarriko ditu herri-administrazio guztien eskura, eta Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako azpiproiektuen eta jarduketen kudeaketan eta gauzatzean esku hartzen duten langileek politika horietan parte har dezaten sustatuko da.

Prestakuntza-ekintzak hierarkia-maila guztietara bideratu behar dira, eta bilerak, mintegiak, lantaldeak eta abar barne hartuko dituzte. Ekintza horien helburuak arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea, kontrol espezifikoak ezartzea, iruzurra antzemanez gero jardutea, erreferentziako kasu praktikoak eta abar izango dira.

#### DATUAK EGIAZTATZEA ETA GURUTZATZEA

Datuak babesteari buruzko legeriaren mugen barruan, erakunde betearazleek tresna egokiak erabiltzea sustatuko dute, datuak lortzeko, biltegiratzeko eta aztertzeko prozesuak optimizatzeko, arriskuak ebaluatzeko, datuak sektoreko beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin gurutzatzeko eta arrisku handiko egoerak detektatzeko, baita funtsak eman aurretik ere.

Horretarako, Plan hau aplikatu behar zaien erakundeetako agintariek eta langileek barne-tresnak erabiliko dituzte, hala nola, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma, eta datu-baseak, eta diru-laguntzen datu baseetan, datuak aztertzeko tresnak ("data mining") edo arriskuen puntuaziokoak, hala nola ARACHNE izenekoa, Europako Batzordeak eskainia eta egina, Funts gatazkatsuetan iruzur-arriskua identifikatu eta ebaluatzeko, hala nola kontratazio publikoan alerta-adierazleen bidez, baita iruzurraren aurkako neurriak diseinatzeko.

## 3.3. Detekzio-tresnak

#### BARNE-KONTROLEKO SISTEMA

BEM funtsen administrazioan inplikatutako kudeaketa-organo eta organo betearazleen barne-kontrol sistematikoak egingo dira, edozein anomalia, irregulartasun edo iruzurrezko jarduera detektatzeko.

Barne-kontrol horien ondorioz, eta arrisku-maila dela-eta beharrezkotzat jotzen den kasuetan, txostenak egingo dira, aldi batean atzemandako irregularitasun, iruzur-susmo eta iruzur guztiak islatzeko, Kontrol Agintaritzak ezarritakoaren arabera. Txostena egiteko, egindako eta egiten ari diren arriskuen autoebaluazioetatik lortutako emaitzak hartuko dira abiapuntutzat.

Barne-kontroleko organo independenteek (Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, esku-hartzeak eta aholkularitza juridikoak), ex ante kontroleko eta kontratazio-mahaietan parte hartzeko eginkizunetan dihardutenean, organo kudeatzaileei eta kide anitzeko organoei jakinaraziko dizkiete antzemandako gorabeherak, eta, hala badagokio, Kontrol Agintaritzari. (II. mailako kontrola).

**KOMUNIKAZIO-SISTEMA**

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakundeak barneko zein kanpoko kanaletan oinarritutako komunikazio-sistema bat ezarriko dute, eta sistema horrek jakinarazpen-mekanismo egokiak eta argiak izango ditu iruzur-susmoen berri emateko.

Ad hoc ezarriko den komunikazio-sistemak, gutxienez, honako ekintza hauek jasoko ditu:

- Inplikatutako agente guztiei eta herritar guztiei jakinaraztea IGAEren kanal publiko bat dagoela (https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx), iruzurrezko portaeren salaketak jakinarazteko. Kanal horretan herritar guztiek har dezakete parte, baita neurrian esku hartzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikok ere.
- Inplikatutako eragile guztiei eta herritar guztiei gardentasun-atariak daudela jakinaraztea; Irekian, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, eta Foru-Aldundien eta Udalen webgune korporatiboetan.
- Inplikatutako eragile guztiei eta herritar guztiei jakinaraztea iradokizunak, kexak edo salaketak modu pribatuan egiteko bide arautuak daudela. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, edonork jo dezake modu pribatuan Jaurlaritzara eta Etika Batzordera (https://www.irekia.euskadi.eus/es/departments/78/proposals). Era berean, foru- eta toki-erakundeek era guztietako kexak eta iradokizunak egiteko prozedurak ezarrita dituzte beren web-orrietan.
- Inplikatutako eragile guztiei eta herritar guztiei Arartekoaren zereginaren berri ematea. Arartekoaren zeregin nagusia herritarrei erantzutea da, Administrazioaren jarduera oker edo irregularrei buruzko kexa, eskari edo kontsultei dagokienez, eta kexa horiek dagokion administrazioari bere jardunbideari buruzko kontuak eskatzen dizkion prozedura baten arabera izapidetzea. Baldin eta, ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera, kexaren xede den jarduera okerra izan dela erabakitzen bada, Arartekoak ebazpen bat emango du, eta, gomendio baten bidez, jarduera okerra aldatzeko eskatuko dio administrazio arduradunari.
- Plan hau aplikatzen zaien erakunde betearazleetako edozeinetako langileek Mekanismoaren jarduketei buruzko salaketak jasotzeko postontzi espezifiko bat ezartzea. Salaketa horiek berariazko protokolo baten bidez tratatuko dira, salatzaileen nortasuna babesteko. Egindako salaketak kualifikazio berezia duten langileek ikertuko dituzte, eginkizun horretara bideratuak.
- Plan hau aplikatzen zaien erakundeetako agintariei eta langileei jakinaraztea iruzur-susmoak eta iruzurrarekiko kalteberatasuna areagotu dezaketen ahulguneak, komunikazio-ereduen bidez.

- Informazioa modu koordinatuan eta antolatuan ematea iruzurra detektatzen duten gainerako eragileei: Zerbitzu Juridikoak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoa edo Plan hau aplikatu behar zaien erakundeetako bakoitzari dagozkion organo eskudunak, Estatuko Administrazio Orokorrean ikerketaz arduratzen diren erakundeak, ustelkeriaren aurkako borrokaz arduratzen diren agintariak.
- Gertaeren eta hartutako neurrien berri ematea ahalik eta lasterren erakunde erabakitzaileari edo erakunde betearazleari, kasuaren arabera, eta hark gaiaren berri emango dio BEMko Agintaritza Arduradunari.
- Azpiproiektuak edo jarduketak egiten inplikatutako agintariei eta/edo iruzurraren eraginpean egon diren guztiei informazioa ematea, modu koordinatuan eta antolatuan.
- Kontrol-txostenaren laburpen bat zabaltzea, iruzur-kasu horiek eta erakunde betearazlearen kudeaketa-txostena jasoko dituena.

#### ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)

"Bandera gorriak" izeneko erreferentziazko adierazle-multzo baten jarraipena egitea, iruzurra dagoen zehazteko. Adierazle horiek iruzurrezko jarduera bat gertatzen ari dela ohartarazteko balio dute, berehala erreakzionatzea eskatzen dutenak, ekintzaren bat egitea beharrezkoa den egiaztatzeko.

Europako Batzordeak katalogo hori egiteko informazioa eman die Estatu kideei, eta iruzur-arriskuak antzemateko egoeran dauden langile guztiei jakinarazi behar zaie informazio hori. Bereziki, onuradunen jarduerak gainbegiratzea eginkizun duten pertsona guztiek (adibidez, dokumentu-egiaztapenak eta tokian bertan egiaztapenak egiten dituztenek edo bestelako jarraipen-bisitak egiten dituztenek) adierazle horiek ezagutu behar dituzte.

BEEPren jarduerak gauzatzeko izapidetzen diren prozeduretan, kudeaketa-kontrolaren funtzioa betez, dokumentu honetan definitutako balizko bandera gorrien berrikuspena dokumentatuta geratu beharko da, dagokion egiaztapen-zerrenda betez. Horretarako, kudeaketa-organoek BEEPk finantzatutako jarduketa eta azpiproiektu bakoitzerako egiaztapenen zerrenda bete beharko dute.

Dokumentu honen **IV. Eranskinean**, **"bandera gorriak" izeneko adierazleen zerrenda erantsi da, bai eta horiek egiaztatzeko zerrenda ere**, iruzurrik dagoen zehazteko.

#### FALTSUTUTAKO DOKUMENTUAK DETEKTATZEA

Faltsututako dokumentuak[6] iruzur-kasu partikularrak dira, eta arreta berezia eskainiko zaie.

Horiek detektatzeko eta zuzentzeko, esku hartzen duten administrazioek barne-kontrolak egingo dituzte, honako hauek kontuan hartuta: IV. Eranskineko adierazleen katalogoa (bandera gorriak), merkataritza-erregistroen datu-baseak, estatuko eta EBeko organismoak, langileen espedienteak (datuak babesteko arauak kontuan hartuta) eta

[6] Iruzurraren Aurkako Borrokarako Europako Bulegoaren (OLAF) dokumentuen faltsifikazioari buruzko gida praktikoan zehazten denez, faltsututako dokumentu bat egia aldatzen dituen edukiak dituen dokumentu bat da. Aldaketa izan daiteke:

- Fisikoa: dokumentu bat fisikoki alda daiteke, adibidez, elementuak edo erreferentziak zirriborratuz, dokumentua aldatzen duen informazioa eskuz gehituz, etab.
- Intelektuala: dokumentuaren edukia ez dator bat errealitatearekin; adibidez, egindako zerbitzuen deskribapen faltsua agertzen da, txosten bateko eduki faltsua, sinadura faltsuak laguntza-zerrenda batean, etab.

datuak aztertzeko tresnak ("data mining") edo arriskuen puntuazioa (ARACHNE).

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek, Foru-Aldundiek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek faltsututako dokumentazioaren kasuak jakinaraziko dizkiote Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari (SNCA, gaztelaniaz) eta, hala badagokio, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (OLAF, gaztelaniaz). Ekintzak zigorgarriak badira, agintari eskudunei egoera salatuko diete, kasuan kasuko Zerbitzu Juridikoen txosten bat eginez, kasua instantzia judizialen esku uzteko erabakia babesteko.

## 3.4. Zuzenketa- eta jazarpen-prozesuak

Ustezko iruzur-kasu bat detektatu eta aurreko puntuko komunikazio-sisteman ezarritako prozeduren arabera jakinarazi ondoren (Europako Batzordearen betekizunekin eta barne-baldintzekin lerrokatuta), kudeaketa-organoek balioetsiko dute ea beharrezkoa den ikerketa bat abiaraztea eta ea bidezkoa den behar ez bezala jasotako zenbatekoak berreskuratzeko eta dagokion akzio penala gauzatzeko beharrezko ekintzak abiaraztea.

OHFP 1030/2021eko 6.6 artikuluko zehaztapenen arabera, iruzur edo susmo oinarridunen bat hautematen denean, Plan hau aplikatu behar zaien erakundeek, eta, zehazki, kudeaketa-organoek, nahitaezko urrats hauek bete beharko dituzte:

- **Iruzurraren ebaluazioa eta sailkapena.** Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakundeek iruzurraren eragina ebaluatuko dute, eta, besteak beste, neurrian esku hartzen duen edonork aurkeztutako ebaluazio-txostenetan oinarrituko dira.
- **Jarduera berrikustea, geldiaraztea eta/edo etetea**. Iruzur posibleren bat detektatuz gero, edo horren susmo oinarriduna izanez gero, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatuta dagoen azpiproiektua edo jarduketa berehala etengo da.

  Horregatik, iruzurrezko jardueraren eraginpean egon diren azpiproiektu edo ekintza-lerro guztiak berrikusi beharko dira, bai eta esku-hartzaileek horiekin lotuta aurkeztu ahal izan duten dokumentazio guztia ere. Nolanahi ere, iruzurraren eraginpean dauden eta BEMko funtsekin finantzatu diren edo finantzatzeke dauden azpiproiektu edo ekintza-ildo guztiak baztertu beharko dira.
- **Komunikazio-sistema.** Erakunde betearazleek konpromisoa hartzen dute ahalik eta eperik laburrenean jakinarazteko iruzurra antzeman badute, edo susmo sendoa badute, bai erakunde interesdunei, bai tartean dauden erakundeei. Erakunde interesatuak Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA), Iruzurraren Aurkako Borrokarako Europako Bulegoa (OLAF), fiskaltza eta auzitegi eskudunak dira; inplikatutako erakundeak, berriz, erakunde betearazlea eta kudeaketa-organoak izango dira.

  Zuzenketarako hartu beharreko neurriei dagokienez, komunikazio-sistemak honako hauek biltzen ditu:

  - ✓ Gertatu diren gertaerak eta hartutako neurriak jakinaraztea jarduketak gauzatzea agindu dion erakundeari. Erakunde betearazle bakoitzak erakunde erabakitzaileari jakinaraziko dio kontua, eta hark Agintaritza Arduradunari jakinaraziko dio. Agintaritza Arduradunak egokitzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, jarraipena egiteko eta Kontrol Agintaritzari jakinarazteko.
  - ✓ Gertaerak salatzea, hala badagokio, Agintaritza eskudunei, SNCAri, balora

ditzaten eta OLAFi jakinaraz diezazkioten.

- ✓ Erantzukizunak argitzeko edo diziplinazko espediente bat irekitzeko informazio erreserbatua hastea.
- ✓ Gertakariak fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatzea, kasuan kasuko kasuetan, Zerbitzu Juridikoek txosten juridiko bat eginez, kasua instantzia judizialen esku uzteko erabakia babesteko.

- **Espedienteak berrikustea.** Agintaritza eskudunek ikerketa amaitu ondoren, edo horren jarraipena egiteko agintari egokiei transferitu ondoren, Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakundeek zehatz-mehatz berrikusiko dute iruzur potentzialarekin edo frogatuarekin lotutako prozesu edo prozedura oro, eragiketa horretan sartutako espediente guztiak eta/edo antzeko izaera ekonomikoa dutenak, bai eta barne-kontroleko sistemak ere. Gainera, iruzurraren aurkako neurriekin lotutako autoebaluazio-testaren emaitzaren txostenak berrikusiko dira (II. Eranskina).

  Berrikuspen horrek objektiboa eta autokritikoa izan behar du, eta lankidetzan jardun behar du ikerketaz arduratzen diren agintaritzekin eta legea betez, bai eta agintaritza judizialekin ere.

  Berrikuspenaren ondorioz, erakunde horiek, hautemandako puntu ahulei eta ikasitakoei buruzko ondorioak azalduko dituzte, mekanismo egokiak, arduratsuak eta epe zorrotzak ezartzeko ekintza argiekin.

- **Jasotako zenbatekoak berreskuratzea (bidegabeko ordainketak), baterako finantzaketa kentzea eta akzio penala.** Erakunde betearazleek, agintaritza eskudunekin batera, onuradunek bidegabe jasotako zenbatekoak berreskuratzeko eskatuko dute, bai eta atzemandako intzidentzia identifikatzen duten espediente guztietatik Batasunaren baterako finantzaketa kentzeko ere.

  Horretarako, iruzurrez erabili diren EBko funtsen berreskurapenaren jarraipenean prozesu zorrotzak formalizatuko dituzte. Prozesu horiek argiak izan behar dute prozesu zibila edo penala jarraituko den kasuetan ere.

  Bestalde, iruzurgileentzako disuasio-elementu gisa, zehapen-jarduketak ikusaraziko dira eta horien aplikazioa zehazteko mezua indartuko da.

# 4. Interes-gatazkak saihesteko prozesuak eta tresnak

## 4.1. Testuingurua.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Araudiaren 61. artikuluak, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplika dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoak (EBren Finantza Araudia), ezartzen du interes-gatazka (IG) dagoela "finantza-eragileek eta aurrekontua egikaritzen parte hartzen duten gainerako pertsonek, zuzenean, zeharka eta modu partekatuan, bai eta kudeaketan ere, prestaketa-ekintzak barne, familiako, afektibitateko, kidetasun politiko edo nazionaleko, interes ekonomikoko edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoirengatik beren eginkizunak modu inpartzialean eta objektiboan betetzeko konprometituta daudenean".

Araudi horrek, OHFP 1030/2021en III.C Eranskinean aipatzen den bezala, honako hau ezartzen du:

- EBko Erakunde guztietako administrazio- eta eragiketa-partida guztiei eta kudeaketa-metodo guztiei aplika dakieke.
- Edozein interes pertsonal estaltzen du, zuzena edo zeharkakoa.
- Interes-gatazka potentzialtzat jotzen den edozein egoeratan jardun behar da.
- Agintaritza nazionalek, edozein mailatakoek, balizko interes-gatazkak saihestu eta/edo kudeatu behar dituzte.
- Ondorio horietarako, interes-gatazkan zerikusia izan dezaketen eragileak hauek dira:
- Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta eginkizun horietako batzuk eskuordetu zaizkien beste agente batzuk.
- Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira, eta beren interesen alde egin badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka ere, interes-gatazka baten esparruan.

Iruzurraren kontrolaren kasuan bezala, planak modu holistikoan heltzen dio interes-gatazkari, prebentziotik arau-hausleen zuzenketa eta jazarpenera bitarteko ziklo osoa kontuan hartuta.

## 4.2. Prebentzio eta detekzio tresnak

Europako Batzordearen (https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409(01)&from=ES) eta OLAFen jarraibideei jarraituz, interes-gatazkak prebenitzeko eta detektatzeko honako tresna hauek aurreikusten dira:

**INTERES-GATAZKEN MODALITATEEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA INPLIKATUTAKO ALDERDIEI**

Interes-gatazka potentzialean inplikatuta egon daitezkeen pertsonek interes-gatazka zer den, haren modalitateak, inplikazioak eta hori saihesteko modua ezagutzen dituztela bermatzea. Inplikatuta egon daitezkeen pertsonak hauek dira:

- Kontratazio-organoetako kideak, kontratazio publikoko zerbitzuen hornitzaileetako langileak eta kontratazio publikoko prozedura gauzatzean zuzenean inplikatuta dauden beste zerbitzu-hornitzaile batzuetako langileak.

- Kontratazio-erabakiak hartzeko ardura duten organismoetako kideak, kontratazio publikoaren prozeduran nahitaez zuzenean inplikatuta egon ez arren, emaitzan eragina izan dezaketenak.

Interes-gatazka eragingo lukeen egoera kontuan hartuta, honako hauek bereiz daitezke:

- **Itxurazko interes-gatazka**: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek bere funtzioen edo betebeharren egikaritza objektiboa arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, baina, azkenik, pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekiko (edo alderdi horietan izandako ondorio batekiko) lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez denean.
- **Interes-gatazka potentziala**: enplegatu publiko edo onuradun batek horrelako interes pribatuak dituenean sortzen da, eta interes horiek interes-gatazka sor dezakete etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar badituzte.
- **Interes-gatazka erreala**: langile publiko baten betebehar publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dakar, eta enplegatu publikoak bere betebehar eta erantzukizun ofizialak betetzean modu bidegabean eragin dezaketen interes pertsonalak ditu. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharren eta funtsen interes pribatuen artean, horiek modu bidegabean eragin baitezakete betebehar horiek betetzean.

**INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)**

Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakundeen zerbitzura dauden agintaritza eta langile guztiek, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako azpiproiektuen eta jarduketen kudeaketan eta gauzatzean parte hartzen badute, interes-gatazkarik ezaren adierazpena beteko dute.

Zehazki, eta OHFP 1030/2021eko III.C Eranskinean zehazten den bezala, adierazpen hau sinatu beharko dute kontratazio/diru-laguntza emateko organoaren arduradunak, lizitazio/oinarrien eta/edo deialdien agiriak idazten dituzten langileek, eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzeko batzordeetako kideek eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoek. Kontratazio txikien eta baliabide propioei egindako enkarguen kasuan, espedientea proposatu edo bultzatu duen unitateko titularrak beteko du adierazpena.

Gainera, IGEA betetzea eskatuko zaie, laguntza emateko baldintzen barruan, interes-gatazka potentziala sortzen duten jarduerak egin behar dituzten onuradunei.

IGEAn, adierazpen-egileak honako hau adierazi beharko du:

- ✓ Bere ezagutzan, parte hartzen duen prozedura administratiboari lotutako interes-gatazka itxurazko, potentzial edo erreal bat badago.
- ✓ Etorkizun hurbilean interes-gatazka itxurazko, potentzial edo errealeko egoera batera eraman dezakeen zirkunstantziarik badago.
- ✓ Edozein interes-gatazka berehala deklaratzeko konpromisoa hartzen duela, inguruabarren batek ondorio hori ekar badezake.

Dokumentu honen **V. Eranskinean** Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaren (IGEA) eredua erantsi da.

**INTERES-GATAZKA POSIBLEAREN PREBENTZIOARI, DETEKZIOARI ETA KUDEAKETARI BURUZKO DOKUMENTUA**

Neurrien plan honen **VI. Eranskin** gisa, interes-gatazka posbilearen prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari buruzko dokumentu bat erantsi da. Bertan, langileei informazioa ematen zaie interes-gatazken modalitateei buruz, gatazka hori saihesteko moduei buruz eta gai horri buruz indarrean dagoen araudiari buruz, eta interes-gatazkarik antzemanez gero jarraitu beharreko prozedura jasotzen da. Dokumentu hori Plan hau aplikatzen zaien erakundeen intranetean argitaratuko da, eta argitalpen hori erakundeko langile guztiei jakinaraziko zaie posta elektronikoaren bidez.

**DATUAK EGIAZTATZEA ETA GURUTZATZEA**

Datu pertsonalak babesteko arauak kontuan hartuta, erakunde betearazleek merkataritza-erregistroetako, estatuetako eta EBko organismoetako datu-baseak, administrazio- eta langile-espedienteak eta datuak aztertzeko ("data mining") edo arriskuak puntuatzeko tresnak (ARACHNE) erabiliko dituzte emandako adierazpenen fidagarritasuna egiaztatzeko.

**ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)**

"Bandera gorriak" izeneko erreferentziazko adierazle-multzo baten jarraipena egitea, iruzurra dagoen zehazteko. Adierazle horiek interes-gatazka bat gertatzen ari dela ohartarazteko balio dute, berehala erreakzionatzea eskatzen dutenak, ekintzaren bat egitea beharrezkoa den egiaztatzeko.

Iruzurra detektatzeko erabiltzen den katalogo berak (IV. eranskina) interes-gatazka motak detektatzeko adierazleak ere baditu. Adierazle horiek OLAFen arlo horretako gida praktikoarekin lerrokatuta daude.

Etengabeko eta aldizkako ebaluazioa

Adierazleetan oinarrituta, etengabeko monitorizazioa egingo da, interes-gatazka posibleak goiz detektatzeko eta saihesteko.

- Langileek aldizka galdesortak betetzea, interes-gatazkan sartzeko aukerari buruz adi dauden ebaluatzeko.
- Kontrol-zerrendak egitea, erabakiak hartzen parte hartzen duten eta, beraz, interes-gatazkan sar daitezkeen langileek beteko dituztenak.

## 4.3. Zuzenketa-tresnak

Interes-gatazka zuzentzeko tresnen helburua inplikatutako pertsona zigortzea eta/edo interes-gatazkak eragindako edozein gaitz konpontzea da. Interes-gatazkak saihesteko tresnak honako hauek dira:

**EX POST EGIAZTAPEN-KONTROLAK**

Erakunde betearazleek, interes-gatazkarik egon den egiaztatuko dute, interes-gatazkak prebenitzeko erabilitako kontrol-zerrendak baliatuta. Ebaluazioak betetzeko erabiliko diren ex post mekanismoak IGEAn zentratzen dira, eta hori beste informazio mota baten argitan aztertu beharko da IG-ko egoerak egiaztatu behar direnean.

Interes-gatazka izaera penalekoa bada, agintaritzak, gainera, estatuko legeriarekin bat etorriz, salaketa judiziala egin beharko du, kasuaren ondoriozko administrazio-alderdiak gainbegiratu eta egoeraren arriskuen azterketa egin beharko du.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, IGAErekin lankidetzan (III. maila), berariazko auditoriak egin ahal izango ditu interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurri egokiak dauden ikusteko.

**KOMUNIKAZIO-SISTEMA**

Interes-gatazka bat egon daitekeela uste denean, eragindako pertsonak idatziz jakinaraziko dio egoera hierarkian gorago dagoenari, eta kasuan kasuko zerbitzu juridikoek txosten bat egingo dute kasua instantzia judizialetara eramateko erabakia babesteko, baldin eta IG izaera penalekoa bada.

Gainera, gertatutakoaren berri emango da, erabakien gardentasuna bermatzeko eta antzeko egoeretan disuasio-elementu gisa balio dezan.

**JARDUERA BERRIKUSTEA, GELDIARAZTEA ETA/EDO ETETEA**

Interes-gatazka eragin dezakeen arrazoiren bat duten agintaritzek eta langileek ez dute esku hartuko eragindako prozeduretan.

Interes-gatazkak onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontratistei ere eragingo die, baldin eta haien jarduerak Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete, baina Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoetako finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

Erakunde betearazleek interes-gatazkak eragindako jarduera oro utziko dute, eta eragindako kontratua/jarduera ezeztatuko dute, eta kontratazio publikoaren prozeduraren zatia errepikatu beharko dute.

Gainera, interes-gatazka bat hautematen denean, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren legezko arauen eta barne-araudien araberako neurriak hartuko dira (diziplina- edo administrazio-zehapenak eta/edo diziplina-espedientea irekitzea).

# 5. Estatu-laguntzak eta finantzaketa bikoitza saihesteko prozesuak eta tresnak.

## 5.1. Testuingurua

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakundeak Estatu-Laguntzei buruzko araudia uneoro erabat errespetatzen dela bermatzeko eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko prozedurak aplikatuko dituzte. Horretarako, prozedura horiek bat etorriko dira OHFP 1030/2021eko 7. artikuluarekin eta III.D Eranskinarekin, Estatuko laguntzen erregimenarekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioari buruzkoarekin.

Estatu-laguntzaren kontzeptua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107-109. artikuluetan eta hura garatzeko araudian jasota dago.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Araudiak (EB), 2021eko otsailaren 12koak, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, 8. artikuluan adierazten duenez, "Inbertsio pribatuak inbertsio publikoko programen bidez ere susta daitezke, bereziki, finantza-tresnen, diru-laguntzen eta bestelako tresnen bidez, betiere estatu-laguntzen arloko arauak errespetatzen badira".

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (España Puede) 4.6 apartatuak, kontrolari eta auditoretzari buruzkoak, espresuki jasotzen ditu Estatu-laguntzak, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik datozen funtsak egikaritzeko kontrol-ekintzaren zati gisa, eta zehazten du finantzaketa bikoitzak, "diru-laguntza publikoen kasuan, Batasunaren finantzaketa bikoitzari ez ezik, jatorria kontuan hartu gabe gerta litekeen edozein gehiegizko finantzaketari ere heltzen diola".

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Araudiak, 2018ko uztailaren 18koak, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplika dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoak (Finantza Araudia), espresuki ezartzen du 188. artikuluan finantzaketa bikoitzaren debekua, diru-laguntzei aplika dakiekeen printzipio orokor gisa, eta 191. artikuluan hurrengoa adierazten du: "Inola ere ezingo dira gastu berberak aurrekontuaz birritan finantzatu".

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Araudiko 62. kontuan hartuzkoan ezartzen denez, Araudi horretan aurreikusitako ekintzek koherenteak izan behar dute abian diren Batasunaren programekin, eta horiek osatu behar dituzte, bai eta Mekanismotik eta Batasunaren beste programa batzuetatik eratorritako finantzaketa bikoitza saihestu ere, gastu berberei dagokienez, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren kasuan, zehazki. Araudi horren 9. artikuluak xedatzen duenez, erreformek eta inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso ahal izango dute, betiere laguntza horrek kostu bera estaltzen ez badu.

## 5.2. Prozesuak eta tresnak

**AUTOEBALUAZIOA**

Erakunde betearazle bakoitzak autoebaluazio-galdeketa bat beteko du, gutxieneko estandar bat betetzen dela bermatzeko. Autoebaluazio-galdeketa aldizka errepikatuko da, emaitzen txostenetan hautemandako arriskuaren arabera.

Dokumentu honen VII. Eranskinean estatu-laguntzen erregimenaren bateragarritasun-test bat erantsi da, finantzaketa bikoitza saihesteko.

**KUDEAKETA-ADIERAZPENA ORDAINKETA-ESKAERAN**

BEEPean Europako Batzordeari hainbat ordainketa-eskaera egitea aurreikusten da.

Eskaera horiek mugarriak eta helburuak betetzearekin lotuta daude, eta Plan hau aplikatu behar zaien erakundeek Kudeaketa-aitorpenaren ereduaren bidez sinatuko dute **VIII. Eranskinean** jasotako ordainketa-eskaeran.

Kontrol-organoek gainbegiratuko dute BEEParen jarduerak gauzatzen dituzten organoek, bai eta BEEParen jarduerak gauzatzeko ardura eman zaien beste erakunde batzuek ere, iruzurraren prebentzioari buruzko kudeaketa-adierazpen hori aurkezten dutela. Aldizkakotasuna aurreikusitako egutegira egokituko da.

**BARNE-KUDEAKETA ETA -KONTROLA**

Plan hau aplikatu behar zaien erakundeek beren kontrol-sistema propioa erabiliko dute funtsak aipatutako araudiaren arabera kudeatu direla ziurtatzeko, finantzaketa bikoitza saihesteko (I. eta II. Mailak). Gainera, IGAEk, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin lankidetzan (III. Maila), berariazko auditoretzak egin ahal izango ditu, estatu-laguntzarik jasotzen ez dela eta finantzaketa bikoitzik egiten ez dela egiaztatatzeko.

Barne-kontrolaren barruan, kontuan hartuko dira neurrian esku hartzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikok egin ditzakeen arrisku handieneko jarduerak.

# 6. Ingurumen-inpaktu negatibo nabrmenik gertatzen ez dela bermatzeko prozesuak eta tresnak.

## 6.1. Testuingurua

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 EB Araudiak, 2021eko otsailaren 12koak, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, 5.2 artikuluan adierazten du "Mekanismoak kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa errespetatzen duten neurriak baino ez dituela babestuko".

Printzipio hori irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak garatzen du. Agindu horrek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen du, eta 5. artikuluan ezartzen duenez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko neurrietako batek ere ez die kalte nabarmenik (DNSH) eragingo 2020/852 Araudian (EB) zehaztutako sei ingurumen-helburuei, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko eta 2019/2088 (EB) Araudia aldatzen duena.

1. oin-oharrean adierazten den bezala, helburuak honako hauek dira:

- Klima-aldaketa arintzea
- Klima-aldaketara egokitzea
- Baliabide hibridoen eta itsas baliabideen erabilera eta babes iraunkorra.
- Ekonomia zirkular baterako trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
- Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta berreskuratzea.

Agindu horren arabera, BEEParen osagaiak planifikatu eta gauzatzeko garaian nahitaez kontuan hartu beharreko printzipio edo irizpide espezifiko bat da "ingurumenean izan daitezkeen inpaktu esanguratsuei buruzko arrisku-analisia (Do No Significant Harm, DNSH), jarraipena eta hasierako ebaluazioaren emaitzen egiaztapena".

## 6.2. Ingurumen-kalte nabarmenik eragiten ez dela bermatzeko prozesua (DNSH).

BEEParen neurri guztiak erakunde betearazleek ebaluatu behar dituzte, DNSH betetzeari dagokionez. Ebaluazio-prozesua bi etapatan egiten da:

Lehenengo etapan, neurri horrek sei ingurumen-helburuetako bakoitzean aurreikus daitekeen inpaktua duen baloratu behar da. Neurriak helbururen batean ingurumen-inpakturik izango duela aurreikusten ez den kasuetan, helburu bakoitzerako egoera horretara eraman duen arrazoibidea/k azaldu/arrazoitu behar da/dira:

Lehenengo etapa amaituta, bigarren etapan, neurriak ingurumen-helbururen batean eragina izan dezakeela aurreikusten den kasuen justifikazio substantiboa ematea egokituko da.

Prozesua errazteko, IX. Eranskin gisa aurkezten dira Ingurumen-kalte nabarmena ez egiteko printzipioaren Autoebaluazio-fitxak - DNSH

# 7. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarraibideak

Iruzurraren Aurkako Neurrien Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakundeek planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo dute, eguneratuta eta estatuko eta Europako jarraibideen arabera mantentzeko.

**JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Zuzendaritza-zentroek urtero egingo dute Planaren jarraipena eta ebaluazioa, plana betetzen dela zaintzeko, arauketa-ondorioetarako eta ondorio praktikoetarako, bai eta kudeaketa-prozesuetan hobekuntza-alderdiak identifikatzeko ere.

Jarraipena eta ebaluazioa erakunde eta kudeaketa-organoek eskura jarritako formularioen bidez eta/edo auditorien ondorioen arabera jasotako ekarpenen bidez egin ahal izango da, beharrezko kontrol-mekanismo berriak identifikatuz.

Kudeaketa-organoek edo kontrol-organoek arriskuren bat hautematen badute, eta urteko aldizkakotasuna gorabehera, planean jasotako neurrien jarraipena egingo da.

Era berean, ezarritako helburuen osotasunaren eta betetzearen aurkako egintza bat gauzatzen bada, organizazioak gertaerak aztertu eta kudeaketa- eta kontrol-egituretan eta -prozesuetan egin beharreko aldaketak zehaztu behar ditu.

**PROZEDURAK EGUNERATZEA**

Urtero aztertuko da planean jasotako prozedurak sartzeko eta/edo eguneratzeko beharra, irregulartasunak prebenitzeko.

Hala badagokio, eta beharrezkoa izanez gero, prebentzio-planak sartuko dira.

**EGUNERAKETAK ETA ALDAKETAK KOMUNIKATZEA ETA ZABALTZEA**

Plana eta haren eguneraketak plan honen aplikazio eremuan sartzen diren erakundeen webguneetan argitaratuko dira, eta tartean diren langile guztiei zabalduko zaie, batez ere unitate kudeatzaileei.

Bereziki azpimarratuko da plana berrikustearen ondoriozko txertatze edo aldaketa berrien zabalkundea.

# 8. Proposatutako neurrien laburpen betearazlea

Hurrengo taulan, dokumentu honetako 5., 6., 7., 8. eta 9. puntuetako neurri espezifiko guztiak jasotzen dira, dagokion atala, horiek ezartzeko ereduak eta horietako bakoitza zein mailatan aplikatzen den adieraziz.

| **Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak** | | | |
|---|---|---|---|
| Neurria | Deskribapena | Eredua | Maila |
| **Iruzurraren aurkako borrokarako Adierazpen Instituzionala IGEA.** | Kudeaketa-organoak iruzurraren aurkako borrokan estandar etiko altuenak lortzeko konpromisoa hartzen duelaren adierazpen argi eta garbia. | I. Eranskina | I |
| **Iruzurraren aurkako konpromisoa laguntzen jakinarazpenetan.** | Berariaz adieraztea Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiko iruzurraren aurkako neurriak betetzeko konpromisoa. | Europako Kontratazio Agiri Bakarra EKAB | I |
| **Unitate, zerbitzu edo organo arduraduna** | Planaren aplikazioa eta jarraipena, iruzurra ebaluatzeaz, salaketak aztertzeaz, ebaluatzeaz eta jakinarazteaz eta neurri zuzentzaileak proposatzeaz arduratzen dena. | | |
| **Arriskuaren eraginaren eta probabilitatearen hasierako ebaluazioa.** | Iruzurra jasan dezaketen prozesuaren zatiak identifikatzeko, kontrolatzeko eta antzemandako arrisku-mailaren arabera beharrezkoak eta proportzionatuak diren neurriak hartzeko modua. | II. Eranskina | I |
| **Kode Etikoa eta Jokabide-Kodea.** | Iruzurgileak uxatzeko eta iruzurrari aurre egiteko agintaritzen eta langileen ahalik eta konpromisorik handiena lortzeko bitartekoak. | III. Eranskina | I |
| **Prestakuntza eta sentsibilizazioa** | BEMrekin finantzatutako azpiproiektuen eta jarduketen kudeaketan eta egikaritzean esku hartzen duten langileentzako iruzurraren aurkako borroka-politikei buruzko prestakuntza-jarduera teorikoak eta praktikoak. | | I |
| **Datuak egiaztatzea eta gurutzatzea.** | Arriskuak ebaluatzeko datuak lortzeko, biltegiratzeko eta aztertzeko tresnak erabiltzea. | ARACHNE | I |
| **Barne-kontrolak** | Kudeaketa-Organo kudeatzaileen eta betearazleen barne-kontrolak, edozein anomalia, irregulartasun edo iruzurrezko jarduera detektatzeko. | | I eta III |
| **Komunikazio-sistema** | Barneko eta kanpoko kanalak, jakinarazpen-mekanismo egoki eta argiekin, iruzur-susmoen berri emateko. | IGAEren kanal publikoa, gardentasun-atariak eta Arartekoa. | I |
| **Adierazleen katalogoa (bandera gorriak).** | Iruzurra dagoen zehazteko erreferentziazko adierazleak. | IV. Eranskina | I |
| **Faltsututako dokumentuak detektatzea.** | Esku hartzen duten administrazioen barne-kontrolak, kontuan hartuta adierazleen katalogoa, merkataritza-erregistroen datu-baseak, estatuko eta EBeko organismoak, langileen espedienteak, etab. | | I |
| **Iruzurraren ebaluazioa eta sailkapena.** | Iruzurraren eragina ebaluatuko dute, neurrian esku hartzen duen edonork emandako ebaluazio-txostenetan oinarrituta. | Ondorio- eta ebaluazio-txostenak. | I |
| **Jarduera berrikustea, geldiaraztea eta/edo etetea** | Iruzur edo susmo arrazoitu bat hautemanez gero, azpiproiektua edo jarduketa eten egingo da, eta adierazitako azpiproiektuak edo ekintza-ildoak berrikusi beharko dira. | | I |
| **Komunikazio-sistema** | Iruzurraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari, Iruzurraren aurkako Borrokarako Europako Bulegoari, | | I |

| Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak | | | |
|---|---|---|---|
| Neurria | Deskribapena | Eredua | Maila |
| | fiskaltzari eta auzitegiei, eta erakunde betearazleari eta kudeaketa-organoei ustezko iruzur edo susmo oinarriduna jakinaraztea. | | |
| **Espedienteak berrikustea.** | Iruzur potentzialarekin edo frogatuarekin zerikusia duen edozein prozesu edo prozedura berrikusiko da, baita eragiketa horretan sartutako espediente guztiak edota antzekoak eta barne-kontroleko sistemak ere. | Ondorio- eta autoebaluazio-txostenak. | I |
| **Jasotako zenbatekoak berreskuratzea (bidegabeko ordainketak), baterako finantzaketa kentzea eta akzio penala.** | Iruzurrez erabilitako funtsen berreskurapenaren jarraipena egiteko prozesuak formalizatuko dira. Disuasio-elementu gisa, zehapen-jarduketak ikusgai jarriko dira. | | I |

| Interes-gatazkak saihesteko prozesuak eta tresnak | | | |
|---|---|---|---|
| Neurria | Deskribapena | Eredua | Maila |
| **Interes-gatazken modalitateei buruzko informazioa ematea.** | Inplikatutako pertsonek interes-gatazkari, haren modalitateei, inplikazioei eta hura saihesteko moduari buruzko informazioa dutela bermatzea. | | I |
| **Interes-gatazkarik ezaren adierazpena IGEA** | Deklarazio-egileak adieraziko du egoera horretara eraman dezaketen itxurazko interes-gatazkarik, interes-gatazka potentzialik edo gatazka errealik dagoen, eta interes-gatazka potentzialak deklaratzeko konpromisoa hartuko duela. | V. Eranskina | I |
| **Interes-gatazka posibleen prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari buruzko dokumentua** | Bertan, langileei informazioa ematen zaie interes-gatazken modalitateei buruz, gatazka hori saihesteko moduei buruz eta gai horri buruz indarrean dagoen araudiari buruz, eta interes-gatazka posiblerik antzemanez gero jarraitu beharreko prozedura jasotzen da. | VI. Eranskina | |
| **Datuak egiaztatzea eta gurutzatzea** | Arriskuak ebaluatzeko datuak lortzeko, biltegiratzeko eta aztertzeko tresnak erabiltzea. | ARACHNE | I |
| **Adierazleen katalogoa (bandera gorriak).** | Interes-gatazka dagoen zehazteko erreferentziazko adierazleak. | IV. Eranskina | I |
| **Etengabeko eta aldizkako ebaluazioa** | Adierazleetan oinarritutako etengabeko monitorizazioa, interes-gatazka posibleak goiz detektatzeko eta saihesteko. | II. Eranskina | I |
| **Ex post egiaztapen-kontrolak** | Interes-gatazkarik izan den egiaztatuko da, interes-gatazkak prebenitzeko erabilitako kontrol-zerrendak baliatuta. | | I eta III |
| **Komunikazio-sistema** | Interes-gatazkak eragindako pertsonak idatziz jakinaraziko dio hierarkian gorago dagoenari, eta txosten juridiko bat egingo da gatazka judizializatzeko erabakia babesteko, izaera penalekoa bada. | | I |
| **Jarduera berrikustea, geldiaraztea eta/edo etetea** | Interes-gatazkan dauden agintaritzak eta langileak edo onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak abstenitu egingo dira eragindako prozeduretan. | | I |

| Estatu-laguntzak eta finantzaketa bikoitza saihesteko prozesuak eta tresnak |
|---|

| Neurria | Deskribapena | Eredua | Maila |
|---|---|---|---|
| **Autoebaluazioa** | Erakunde betearazleek autoebaluazio-galdeketa bat beteko dute aldizka, gutxieneko estandarra betetzen dutela bermatzeko. | VII. Eranskina | I |
| **Kudeaketa-adierazpena ordainketa-eskaeran.** | Adierazpen hori mugarriak eta helburuak betetzearekin lotuta dago, eta Europako Batzordeari aldian-aldian igortzen zaion ordainketa-eskaerari erantsiko zaio. | VIII. Eranskina | I |
| **Barne-kudeaketa eta -kontrola** | Kontrol-sistemen bidez egiaztatuko da funtsak finantzaketa bikoitza ez egotea. IGAEk, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin lankidetzan, auditoria espezifikoak egin ahal izango ditu. | | I, II eta III |

| **Ingurumen-inpaktu negatibo nabrmenik gertatzen ez dela bermatzeko prozesuak eta tresnak** | | |
|---|---|---|
| Neurria | Deskribapena | Eredua |
| **Ingurumen-kalte nabarmenik eragiten ez dela bermatzeko prozesua DNSH** | BEEPren neurriak DNSH betetzeari dagokionez ebaluatu behar dira, bi etapatan:<br><br>1. Neurriak 1030/2021 Aginduan adierazitako sei ingurumen-helburuetan eragina baduen.<br><br>2. Neurriak ingurumen-helbururen batean eragina izan dezakeen kasuen funtsezko justifikazioa. | IX. Eranskina |

# 9. Eranskinak

## 9.1. I. Eranskina - Iruzurraren aurkako borrokarako Adierazpen Instituzionala

.....(a/e)k Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean erakunde betearazlearen funtzioak beteko dute.

Ildo horretan, arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar altuenekin duten konpromisoa adierazi nahi dute, bai eta integritate-, objektibotasun- eta zintzotasun-printzipio zorrotzenekin bat egiten dutela ere, haren jarduera harekin harremana duten eragile guztiek iruzurraren eta ustelkeriaren aurkakotzat har dezaten, edozein modutan ere.

Bere zerbitzura dauden langileek, enplegatu publikoak diren aldetik, "honako betebehar hauek dituzte, besteak beste: interes orokorrak zaintzea, Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa errespetatuz eta betez, eta printzipio hauen arabera jardutea: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, ingurugiru kulturalaren eta ingurumenaren sustapena, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekiko errespetua" (5/2015 Legea, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena, 52. artikulua).

Politika horren helburua erakundearen barruan iruzurrezko jarduera oro uxatuko duen kultura sustatzea da, jarduera horiek prebenitu eta detektatzea erraztuko duena, eta kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatzea sustatuko duena.

Erakunde betearazle gisa, .....(a/e)k beren gain hartutako eginkizunetan sartzen da iruzurraren aurkako neurriak abian jartzea, Europako Erkidegoko araudian ezarritakoaren esparruan eta proportzionaltasun-irizpideei jarraiki. Era berean, prozesuen arduradunen eta kudeatzaileen laguntza du, bakoitzak bere erantzukizun-arloaren barruan barne-kontrolerako sistema egokia dagoela ziurtatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak ezartzeko behar den arreta bermatzeko.

Iruzurraren aurka borrokatzeko neurri eraginkorrak eta proportzionatuak jarriko dira abian, aurreko aldietan lortutako esperientzian eta iruzur-arriskuaren ebaluazioan oinarrituta.

Era berean, atzemandako irregulartasunak edo iruzur-susmoak salatuko ditu, barneko jakinarazpen-kanalen bidez, eta betiere agintaritza arduradunarekin, kontrol-agintaritzarekin, Iruzurraren Aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalarekin eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin lankidetzan. Txosten guztiak konfidentzialtasun zorrotzenarekin eta gai hori arautzen duten arauen arabera tratatuko dira.

Azken batean, kontrol-sistema bat ezarri da, ahal den neurrian, iruzurrak prebenitzeko eta deketatzeko eta, gertatuz gero, horien eragina zuzentzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko XX(a)ren XX(e)an

## 9.2. II. Eranskina - Arriskuaren eragina, probabilitatea eta ebaluazioa

Interes-gatazkaren, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentziorako testa (II.B.5 Eranskina OHFP 1030/2021):

| GALDERA | BETETZE-MAILA | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 1. Ba al dago "Iruzurraren aurkako neurrien Plan"-ik, erakunde betearazleari edo erakunde erabakitzaileari bermatzeko eta adierazteko kasuan kasuko jarduera-eremuan funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurraren prebentzioari, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzioari, detekzioari eta zuzenketari dagokionez? | | | | |
| 2. Egiaztatzen al da "Iruzurraren aurkako neurrien Plana" dagoela betearazpen-maila guztietan? | | | | |
| Prebentzioa | | | | |
| 3. Ba al dago iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa hartzen duen adierazpen gorenik? | | | | |
| 4. Autoebaluazio bat egiten al da arrisku espezifikoak,<br>horien inpaktua eta horiek gertatzeko probabilitatea identifikatzeko eta aldizka berrikusteko? | | | | |
| 5. Kode etiko bat zabaltzen da eta opari-politikari buruzko informazioa ematen da? | | | | |
| 6. Etika Publikoa sustatzen duen eta iruzurra detektatzea errazten duen prestakuntzarik ematen al da? | | | | |
| 7. Egin al da interes-gatazkak tratatzeko prozedurarik? | | | | |
| 8. Betetzen al da esku hartzen duten guztiek interes-gatazkarik ez dutela dioen adierazpena? | | | | |
| Detekzioa | | | | |
| 9. Zehaztu al dira iruzur-adierazleak edo alerta-seinaleak (bandera gorriak) eta jakinarazi al zaizkie langileei detektatzeko moduan daudela? | | | | |
| 10. Datuak aztertzeko edo arriskuak puntuatzeko tresnak erabiltzen dira? | | | | |
| 11. Ba al dago interesdunen batek salaketak aurkezteko<br>biderik? | | | | |
| 12. Ba al dago salaketak aztertzeaz eta neurriak proposatzeaz arduratuko den Unitaterik? | | | | |
| Zuzenketa | | | | |
| 14. Iruzurraren eragina ebaluatu eta sistemikotzat edo puntualtzat jotzen da? | | | | |
| 15. Erretiratzen al dira iruzurrak eragindako proiektuak edo horien zatia, BEMak finantzatutakoak edo finantzatu beharrekoak? | | | | |
| Jazarpena | | | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 16. Gertatutakoak eta hartutako neurriak jakinarazten al zaizkie erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo Agintaritza Arduradunari, dagokionaren arabera? | | | | |
| 17. Dagokien kasuetan, estatuetako edo Europar Batasuneko Agintaritza Publikoei edo fiskaltzari eta auzitegi eskudunei zigortzeko moduko egitateak salatzen al dira? | | | | |
| Puntuen subtotala | | | | |
| Puntuak guztira | | | | |
| Gehieneko puntuak | | | 64 | |
| Puntu erlatiboak (Puntuak guztira / Gehieneko puntuak) | | | | |

## 9.3. III. Eranskina - Kode etikoa eta jokabide-kodea

[Eranskin hau ez da bete beharreko eredu bat. Informazio-Eranskina da, eta Kode Etikoan eskatzen den gutxieneko edukia jasotzen du, hala uste duten erakundeek erreferentzia gisa erabili ahal izan dezaten.]

Kode etikoa eta jokabide-kodea barne hartzen dituen kultura etikoa garatzea eta zabaltzea iruzur, ustelkeria eta interes-gatazken aurkako prebentzio-neurriak dira. Hori egiteko, kultura hori garatuko duten estrategiak ezarriko dira, iruzurraren aurkako egitura eta politika espezifikoak konbinatuz eta honako atal hauetan jasotako mekanismo eta jokabide orokorragoak abiaraziz:

- Eremu subjetiboa
- Printzipio gidariak
- Leialtasun- eta lankidetza-betebeharra
- Eraginkortasuna eta objektibotasuna hautagaitzak kontratatzeko eta ebaluatzeko prozeduretan
- Interes-gatazka (ondare-interesak eta interes pertsonalak; opariak, erregaluak, zerbitzuak eta eskuzabaltasunak, etab.). Interes-gatazka: azalpenak, baldintzak eta deklaratzeko prozedurak
- Konfidentzialtasun-betebeharra. Isilpeko informazioa: azalpena eta erantzukizunak langileen aldetik
- Iruzur jarduera potentzialen jakinarazpena
- Kontuak ematea
- Ez-betetzearen ondorioak
- Opariak eta abegikortasun-politika: azalpena eta erantzukizunak langileen aldetik
- Ustezko iruzurra jakinarazteko betekizunak

Gainera, iruzurrarekin lotutako edozein gairen aldizkako eguneratzeak egingo ditu, iruzurrei buruzko ikerketen emaitzak barne.

## 9.4. IV. Eranskina - Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)

Bandera gorriak alarma-seinaleak, pistak edo balizko iruzurraren zantzuak dira. Bandera gorria izateak ez du nahitaez esan nahi iruzurra dagoenik, baina jarduera-eremu jakin batek arreta gehigarria behar duela adierazten du, iruzur potentzial bat baztertzeko edo baieztatzeko.

Funtsen Koordinaziorako Batzordeak (COCOF) egindako EEGF, EGF eta KFrako iruzur-adierazleei buruzko informazio-oharra erreferentziatzat hartuta, jarraian, bandera gorrien adibideen zerrenda ez-zehatza zerrendatzen da, iruzurrezkoak izan daitezkeen praktiken tipologiaren arabera sailkatuta.

### 1. IRUZURRA KONTRATUETAN ETA KONTRATAZIO PUBLIKOETAN

### 1.1. Ustelkeria, eroskeriak eta legez kanpoko komisioak

**DESKRIBAPENA:**

Eroskeria eta legez kanpoko komisioak "baliozko gauzaren" bat ematean edo jasotzean datza, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko..

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Gizarte-harreman estua dago enplegatu kontratatzaile baten eta zerbitzu-emaile edo hornitzaile baten artean;
- Enplegatu kontratatzailearen ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da;
- Langile kontratatzaileak kanpoko negozio estali bat du;
- Kontratistak legez kanpoko komisioak ordaintzeko ospea du sektorean;
- Dokumentatu gabeko aldaketak edo maiz gertatzen dira kontratuen balioa handitzen duten kontratuetan;
- Langile kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari;
- Langile kontratatzaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.

### 1.2. Interes-gatazka

**DESKRIBAPENA:**

Kontratista den erakundeko langile batek kontratu batean ezkutuko finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Kontratista jakin batek azaldu gabeko edo ohiz kanpoko faboritismoa du. Etengabe onartzen da lan garestia, kalitate eskasekoa, etab.
- Langile kontratatzaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.
- Langile kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Badirudi enplegatu kontratatzaileak aparteko negozio bat zuzentzen duela edo lehiatzeko moduko sozietate batean lan egiten duten senideak dituela.

- Kontratazioaz arduratzen den enplegatu baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten arteko sozializazioa.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatuaren aberastasunaren edo bizi-mailaren igoera ulertezina edo bat-batekoa.
- Lizitazioaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.
- Prozedura negoziatu bat aukeratzen da, prozedura ireki bat egin daitekeen arren.
- Kontratazio-organoko langile batek lehiaketan parte har dezakeen enpresa batentzat lan egin du, kontratazio-organoan sartu aurretik.

### 1.3. Lizitatzaile baten aldeko zehaztapenak eta baldintza-agiriak

**DESKRIBAPENA:**

Baldintza-agiriek lizitatzaile jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak dituzte, edo lizitatzaile bakar batek bete ditzakeenak.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Eskaintza bakarra aurkeztea edo eskaintza kopuru txikia, lizitaziorako hautagai gisa;
- Prozedurako agiri gidarien eta kontratista irabazlearen produktu edo zerbitzuen arteko aparteko antzekotasuna;
- Beste lizitatzaile batzuen kexak;
- Aurreko antzeko prozeduretan onartutakoak baino preskripzio murriztaileagoak edo orokorragoak dituzten agiriak;
- Ezohiko klausulak edo arrazoizkoak ez diren klausulak dituzten agiriak;
- Hornitzaile berari esleipen kopuru handia egitea;
- Kontratatzaileen eta lizitatzaile batzuen artean harreman pertsonalak egotea;
- Botere esleitzaileak marka jakin baten produktu bat definitzen du produktu generiko baten ordez.

### 1.4. Kolusio-lizitazioak

**DESKRIBAPENA:**

Eremu geografiko edo eskualde bateko edo industria-sektore jakin bateko kontratista batzuek konspiratu egiten dute lehiari aurre egiteko eta prezioak igotzeko, lizitaziorako kolusio-mekanismo desberdinen bidez.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Eskaintza irabazlea handiegia da aurreikusitako kostuekin, prezio publikoen zerrendekin, industriako obra edo zerbitzu antzekoekin edo batez bestekoekin edo merkatuko erreferentziazko prezioekin alderatuta;
- Lizitatzaile guztiek prezio altuak eskaintzen dituzte etengabe;
- Eskaintzen prezioak bat-batean jaisten dira lizitatzaile berriek prozeduran parte hartzen dutenean;
- Esleipendunak eskualdearen, lan-motaren eta obra-motaren arabera banatzen/txandatzen dira;

- Esleipendunak lizitatzaile galtzaileak azpikontratatzen ditu;
- Ezohiko eskaintza-ereduak (adibidez, eskaintzek beherapen-ehuneko zehatzak dituzte, eskaintza irabazlea prezio onargarrien atalasearen azpitik doi-doi dago, kontratuaren aurrekontura zehazki eskaintzen da, eskaintzen prezioak altuegiak dira, gertuegiak, oso desberdinak, zenbaki biribilak, osatugabeak, etab.);

### 1.5. Datuen filtrazioa

**DESKRIBAPENA:**

Kontratazioaz, proiektuaren diseinuaz edo eskaintzen ebaluazioaz arduratzen diren langileek isilpeko informazioa filtratzen dute, lizitatzaile bati proposamen tekniko edo finantzario bat egiten laguntzeko.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Lizitazio-prozeduren kontrola eskasa da; adibidez, epeak ez dira aplikatzen;
- Eskaintza irabazlea hurrengoaren azpitik dago;
- Eskaintza batzuk laster ireki dira;
- Eskaintza berantiarrak onartzen dira;
- Aurkeztutako azken eskaintza baxuena da;
- Eskaintza guztiak atzera botatzen dira eta kontratua berriro ateratzen da lizitaziora;

### 1.6. Aurkeztutako eskaintzak manipulatzea

**DESKRIBAPENA:**

Kontratazioko langileek jasotako eskaintzak manipulatzen dituzte, kontratista jakin bat hautatzen dela ziurtatzeko (eskaintzak aldatuz, "galduz", zehaztapenetan ustez egindako akatsengatik baliogabetuz, etab.).

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Lizitatzaileen kexak;
- Kontrolik eza eta lizitazio-prozedura desegokiak;
- Eskaintzak jaso ondoren aldaketak egon direlako zantzuak;
- Akatsengatik baztertutako eskaintzak;
- Lizitatzaile gaitua, zalantzazko arrazoiengatik baztertua;
- Prozedura ez da esleitu gabe utzi, eta berriro deitu da, nahiz eta eskatutako gutxieneko kopurua baino eskaintza gutxiago jaso.

### 1.7. Gastuaren zatikapena

**DESKRIBAPENA:**

Langile kontratatzaileek erosketa bat bi eskaera edo kontratu gehiagotan banatzen dute, goi-mailako zuzendarien lehia edo berrikuspenak saihesteko.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Antzeko helburua duten bi erosketa edo gehiago ikusten dira, esleipendun berari egindakoak, zuzeneko esleipen-prozedurak edo publizitate-atalaseak erabiltzeko onartutako mugen azpitik, edo lehia-berme handiagoko prozedurak eskatuko lituzketenak;

- Erosketak justifikaziorik gabe bereiztea, adibidez, eskulanerako eta materialetarako kontratu bereiziak, biak lizitazio irekiko atalaseen azpitik egonik;
- Erosketa sekuentzialak, lizitazioen publizitatea egiteko betebeharraren atalasearen azpitik.

### 1.8. Kontratuen nahasketa

**DESKRIBAPENA:**

Antzeko hainbat eskaera dituen kontratista batek kostu berberak kargatzen ditu, eta gainfakturazioa eragiten du.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Antzeko fakturak aurkezten dira zeregin edo kontratu desberdinen esparruan;
- Kontratista berak aldi berean zeregin bat baino gehiagorengatik fakturatzen du.

### 1.9. Kostuak bidegabe igotzea

**DESKRIBAPENA:**

Kontratista batek iruzurra egiten du nahita, onargarriak edo arrazoizkoak ez diren edo kontratu bati zuzenean edo zeharka esleitu ezin zaizkion kostuak kargatuz. Lan-kostuak material-kostuak baino gehiago kargatu daitezke bidegabe, teorikoki langile baten lana edozein kontratutan karga baitaiteke.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Gehiegizko edo ohiz kanpoko lan-kargak adierazten dira;
- Kontratuaren aurrerapenarekin koherentziarik ez duten lan-kargak adierazten dira;
- Ordutegi-fitxetan aldaketa nabariak daude;
- Ezinezkoa da ordutegi-fitxak aurkitzea;
- Material-kostu berak kontratu bati baino gehiagori dagozkio;
- Zeharkako kostuak zuzeneko kostuak bezala adierazten dira.

### 1.10. Prezioak modu desegokian finkatzea

**DESKRIBAPENA:**

Kontratistak bere prezio-proposamenetan kostuei edo prezioak finkatzeari buruzko datu gaurkotuak, osoak eta zehatzak agertzen ez dituenean ezartzen dira prezioak modu desegokian, eta horrek kontratua garestitzea eragiten du.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Kontratistak uko egiten dio kostuen egiaztagiriak aurkezteari, entregatzea atzeratzen du edo ez da aurkezteko gai;
- Kontratistak dokumentazio desegokia edo osatugabea aurkezten du.
- Prezioak ezartzeari buruzko informazioa zaharkitua dago;
- Badirudi prezioak altuak direla antzeko kontratuekin, prezio-zerrendekin edo sektoreko batez besteko prezioekin alderatuta.

### 1.11. Kontratuaren zehaztapenak ez betetzea

**DESKRIBAPENA:**

Kontratuaren zehaztapenak betetzen ez dituzten eta bete dituzten itxura egiten duten kontratistek iruzurra egiten dute.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Proben eta ikuskapenen emaitzak ez datoz bat kontratuaren zehaztapenekin;
- Frogak eta ikuskapenak ziurtatzen dituzten dokumentuak falta dira;
- Kalitatea eta emaitzak txarrak dira, eta erreklamazio-kopuru handia dago;
- Kontratistaren gastuen erregistroetan egiaztatzen da, adibidez, kontratistak ez dituela erosi obretarako behar diren materialak, ez daukala eta ez duela errentan eman beharrezko ekipamendua edo ez zuela behar besteko eskulanik lantokian.

## 1.12. Faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak

**DESKRIBAPENA:**

Kontratista batek nahita aurkezten ditu faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak, bere kontura jardunez edo langile kontratatzaileekin kolusioan, ustelkeriaren ondorioz.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak ez daude inbentarioan, edo ezin da horien berri eman;
- Ez dago fakturatutako ondasunen edo zerbitzuen ordainagiririk;
- Fakturatutako ondasun edo zerbitzuen eskaera zalantzazkoa da edo ez dago;
- Kontratistaren erregistroek ez dute jasotzen lana egin denik edo beharrezko kostuak egin direnik;
- Prezioak, zenbatekoak, artikuluen edo baldintzen deskribapenak gehiegizkoak dira, edo ez datoz bat kontratuaren xedearekin, eskaerarekin, ordainagirien erregistroarekin, inbentarioarekin edo erabilera-erregistroekin;
- Faktura asko daude, zenbateko bera, faktura-zenbaki bera, data bera, etab. dutenak;
- Ur-jauzi bidezko azpikontratazioak egin dira;
- Eskudiruzko ordainketak egin dira;
- Paradisu fiskaletan inskribatutako enpresei ordainketak egin zaizkie.

## 1.13. Zerbitzu mamuen emaileak

**DESKRIBAPENA:**

Kontratistek enpresa mamuak sortzen dituzte eskaintza osagarriak kolusioan aurkezteko, kostuak puzteko edo gezurrezko fakturak sortzeko.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Zerbitzu-hornitzailea ezin da aurkitu enpresen direktorioetan, Interneten, Googlen edo beste bilatzaile batzuetan, etab.;
- Ezin dira zerbitzu-hornitzaileen helbideak aurkitu;
- Zerbitzu-emaileak aurkeztutako zerrendako helbideak edo telefono-zenbakiak faltsuak dira;
- Paradisu fiskal batean inskribatutako enpresa batengana jotzen da.

### 1.14. Produktuak ordezkatzea

**DESKRIBAPENA:**

Kontratuan zehaztutako artikuluak kalitate apalagoko beste batzuekin ordeztea da, erosleak horren berri izan gabe.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Bilgarri ez-ohikoak edo generikoak erabiltzen dira: ohikoak ez diren bilgarriak, koloreak edo marrazkiak;
- Espero zen itxura ez dator bat benetakoarekin;
- Aldeak daude produktuen identifikazio-zenbakien eta argitaratutakoen, katalogoan daudenen edo zenbaki-sistemaren artean;
- Probetan edo funtzionamenduan hautemandako akatsen kopurua batez bestekoa baino handiagoa da, ordezko pieza goiztiarrak behar dira edo mantentze-lanen edo konponketen kostuak handiak dira;
- Betetze-ziurtagiriak kualifikatu gabeko edo ziurtatu gabeko pertsona batek sinatuta daude;
- Alde nabarmena dago zenbatetsitako kostuen eta materialen benetako kostuen artean;
- Serie-zenbakiak ez dira ohikoak edo ezabatuta daude; serie-zenbakiak ez datoz bat fabrikatzailearen zenbaki-sistema legitimoarekin;
- Inbentarioan edo fakturan jasotako artikuluen zenbakiak edo deskribapenak ez datoz bat eskaeran aurreikusitakoarekin.

## 2. IRUZURRA DIRU-LAGUNTZETAN EDO LAGUNTZETAN

### 2.1. Ustelkeria, eroskeriak eta legez kanpoko komisioak

**DESKRIBAPENA:**

Eroskeria eta legez kanpoko komisioak "baliozko gauzaren" bat ematean edo jasotzean datza,

administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Gizarte-harreman estua dago Ebaluazio Batzordeko kide baten eta laguntzaren edo diru-laguntzaren onuradun baten artean.
- Diru-laguntza eman duen langilearen ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da.
- Onuradunak eroskeriak ordaintzeko ospea du sektorean.
- Diru-laguntza ematen duen enplegatuak uko egiten dio diru-laguntzak edo laguntzak ematearekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Diru-laguntzak edo laguntzak ematen dituen enplegatuak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.

### 2.2. Interes-gatazka

**DESKRIBAPENA:**

Diru-laguntzak edo laguntzak ematen dituen erakundeko langile batek diru-laguntza batean ezkutuko finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Laguntzaren hartzaile batek azaldu gabeko edo ohiz kanpoko faboritismoa du.
- Langile emaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.
- Enplegatu emaileak uko egiten dio diru-laguntzak edo laguntzak ematearekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Badirudi enplegatu emaileak aparteko negozio bat zuzentzen duela edo lehiatzeko moduko sozietate batean lan egiten duten senideak dituela.
- Laguntzak emateaz arduratzen den enplegatuaren aberastasunaren edo bizi-mailaren igoera ulertezina edo bat-batekoa.
- Deialdiaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.

### 2.3. Hitzartutako zehaztapenak

**DESKRIBAPENA:**

Deialdietan, laguntza-eskatzaile jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak jasotzen dira, edo eskatzaile bakar batek bete ditzakeenak.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Eskatzaile bakar batek edo gutxi batzuek erantzuten diote eskaintzen deialdiari.
- Beste eskatzaile batzuek erreklamazioak aurkezten dituzte.
- Zehaztapenak aurreko antzeko deialdietan baino nabarmen zorrotzagoak edo orokorragoak dira.
- Ohikoak ez diren edo arrazoizkoak ez diren zehaztapenak daude.
- Onuradun bati emakida asko eman zaizkio.
- Emate-prozesuan zehar, harreman edo lotura pertsonalak daude laguntza ematen duten langileen eta eskatzaile batzuen artean.

### 2.4. Datuen filtrazioa

**DESKRIBAPENA:**

Eskabideak emateaz edo ebaluatzeaz arduratzen diren langileek isilpeko informazioa filtratzen dute eskatzaile bati laguntzeko.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Emate-prozeduren kontrola eskasa da; adibidez, epeak ez dira aplikatzen.
- Epez kanpoko eskaerak onartzen dira.
- Eskaera egiteko aldian, onuraduna posta elektronikoz edo beste bideren baten bidez komunikatu da emakidaren ardura duten langileekin.
- Emate-prozeduraz arduratzen ez den enplegatu baten ezohiko jokabidea, prozeduraren inguruko informazioa behin eta berriz eskatuz.

### 2.5. Aurkeztutako eskaintzak manipulatzea

**DESKRIBAPENA:**

Kontratazio-langileek jasotako eskaerak manipulatzen dituzte, eskatzaile jakin bat aukeratzen dela ziurtatzeko.

**IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:**

- Beste eskatzaile batzuek erreklamazioak aurkezten dituzte.
- Emate-prozedurek prozedura urriak eta desegokiak dituzte.
